

soslaia

Elia Kazan y Zinemagilea

Salatariaren itzala

Elia Kazan zinemak eman duen sortzailerik handienetakoa da. Antzerkigintzan nabarmendu zen lehenik. *A Streetcar Named Desire* eta *Death of a Salesman* antzezlanek haren oinetara ipini zuten Broadway. *Gentleman's Agreement* film ausartarekin, berriz, Oscar saria irabazi zuen 1947. urtean. Ondoren, *Pinky*, *Panic in the Streets* eta *A Streetcar Named Desire* film bikainak errodatu zituen. Horretaz gain, Actor's Studio akademia famatuaren arima izan zen. Bertan, besteak beste, Marlon Brando, James Dean eta Monty Clift aktore bihurtu ziren.

Gailurrean zegoela, Joseph McCarthy senatoreak sorgin ehizari hasiera eman zion. Elia Kazan Alderdi Komunistako kide izan zen gaztaroan, eta horrek susmagarri egiten zuen. Ekintza Antiamerikarren Komiteak 1952. urteko urtarrilaren 14an deitu zuen. Kazan-ek Alderdi Komunistaren kide izan zela aitortu arren, ez zuen burkide ohien izenik eman. Hala eta guztiz ere, jasan zituen presio handien ondorioz, apirilaren 10eko aitorpenean, Group Theatre talde progresistan bere ondoan lan egin zuten zortzi kide salatu zituen.

Kazanen saldukeriak Arthur Miller idazlearekin zuen adiskidetasuna apurtu zuen. Hala, Kazanek, iraultza-
ren ezintasuna islatzen zuen *Viva Zapata!* eta *Man on a tightrope* film anti-komunista errodatu ostean, bere jarra-
ra justifikatzeko saio bat egin zuen *On the Waterfront* maisulanarekin. Salake-
taren apologia eder horrekin Oscarra irabazi bazuen ere, ez zituen lagun
ohiak konbentzitu. Hurrengo urtean, Arthur Millerrek *A view from the bridge*



ARTXIBOKOA

Polemika eta protestak
piztu dituen Cherezko
Oscar saria jasoko du
gaur Elia Kazanek

drama pozoinduarekin erantzun baitzion. Bertan, Millerrek salatariaren aurka sentitzen zuen mespretxua argi eta garbi adierazten zuen.

Kazan-ek *East of Eden*, *Baby Doll*, *A Face in the Crowd*, *Wild River* eta *Splendor in the Grass* maisulanak sinatu zituen ondoren. *America, America*, *The Arrangement* eta *The Visitors* ezagunak iritsiko ziren geroago. *The Last Tycoon* filmaren porrot komertzialaren ostean, 1976. urtean, filmatzeari utzi zion.

Hollywoodeko Akademiak Elia Kazanen zinema ibilbide distiratsua sarituko du gaur Oho-
rezko Oscar baten bitartez. Kei-
nu horrek polemika piztu du. Elia Kazan egindakoaz damu dela zabaldu den arren, hura ezagututa, inork gutxik espero du barkamena eskatuko duenik. Komunistak baino areago, estalinistak salatu zitueneko aitzakia merkeak ez du bere jarra inola justifikatzen. Ahula

izan zen eta lagunak salatu zituen. Salaketa egin izana da auzia, eta ez salatuen ideologia. Kazanek hala uste ez bazu ere, isiltasunaren legea zilegi izan zitekeen sasoi ilun hartan. Dorothy Chandler Pavillion atarian antolatutako protesta ekitaldietan parte hartuko dutenekin izango da gaur geure bihotza. Ezberdin pentsatzeagatik kartzela, herbestea eta langabezia nozitu zutenekin. Baina, era berean, Kazanen obra txalotuko dugu. Artista eta artistaren obra bereizi beharra dagoela sinesten dugulako. Gu bezala pentsatzen ez dutenen obra arbuiatuz gero, sorgin ehiza bulztatu zutenen intolerantzia zikinduko ginatekeelako.

Iñaki Lazkano

erreakzioak

Richard Dreyfuss •

'Ezein saririk ezin du aldatu egin zuena'

► *Los Angeles Times* egunkariari adierazi dionenez, aktore ezaguna ez dator bat Hollywoodeko Akademiak Kazan saritzeko erabakiarekin: «Ez dago zalantzarik oso zuzendari handia dela, baina ezein saririk ezin du aldatu egin zuenaren izaera moral txarra».

Karl Malden •

'Oscarra sari artistikoa dira'

► Aktore beterrano eta errespetatuak proposatu zuen Kazanen izena oho-
rezko Oscarra jasotzeko: Oscarra «sari artistiko bat, ez politikoa» dela gaineratuz. Berarekin bat etorri dira Warren Beatty eta Rob Reiner ere.

Jules Dassin •

'Duintasun apur bat balu, sariari uko egin behar lioke'

► Ekintza Antiamerikanoen Batzordearen zerrenda beltzean agertua, Dassin zuzendariak Kazanen inguruko polemikari buruzko bere iritzia eman du: «Kazani duintasun apur bat geratuko baltzaio, sariari uko egin behar lioke».

Dustin Hoffman •

'Kazan ez zen bakar-ra izan izenak ematen'

► Aktore ezagunaren ustez, Akademiak zerrenda beltzean agertu ziren guztiei Kazani bezain beste oho-
re eman behar lieke. Beste nabardura bat ere egin nahi izan du: «Kazan ez zen bakar-ra izan izenak ematen».